

Cancuneko gailurretik Iruñerriko autobusetara

ALDAKETA KLIMATIKOAREN aurka borrokak beste zaplazteko handi bat jaso du NBEko Cancuneko gailurrean, nahiz eta akordioa ia aho batez onartu den (Boliviak aurka bozkatu zuen). Kopenhageko iazko porrotaren ondoren NBE beldur zen: posible ote da aldaketa klimatikoaren nazioarte mailako negoziaketak orain arte bezala bere baitan eta herrialde guztien artean eraman ahal izatea? Nagusiki hori salbatu ei da Cancunen: batetik, herrialde guztien artean negoziatzen jarraituko da eta, bestetik, hurrengo gailurrean CO²ren isurketak murrizteko helburuei helzteko konpromisoa hartu da.

Kopenhageko iazko gailurrean erabaki zen aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko 75.000 milioi euroko funtsa sortzea, eta orain horren kudeaketa Mundu Bankuaren esku utzi da. Askoren ustez, gasolina piromanoaren esku uztea ei da, eta bere historian zehar banku honek izandako politikak kontuan hartuta ustea ez da ustela.

Ikus dezagun horren zergatia adibide batean: uraren kudeaketa. Erregai fosilen erabileraren ondorioz, atmosferan gertatutako CO²aren pilaketak sortzen du negutegi eragina Lurrean eta honek era askotako ondorioak baditu ere, larriena uraren zikloan duen eragina da: gero eta ur

gezaren eskasia handiagoa dago munduan. Ura eta aldaketa klimatikoa, beraz, estuki lotuak doaz, zenbat eta ur geza gutxiago, are eta Lurraren beroketa handiagoa, besteak beste ziklo hidrolotikoa baita Lurra freskatzen duena.

Oraindik ere AEBetan badira aldaketa klimatikoa zalantzan jartzen dutenak, baina jadanik nazioarteko komunitate zientifikoak ez dio zirrikiturik uzten zalantza horri, mesfidatienak ere hasi ziren berau onartzen *New Scientist* aldizkariak 2007an hala esan zuenean. Zer esan nahi du honek? Oro har, Lurraren eremu lehorrak lehorrago bihurtuko direla, eta tropikoetako zenbait eremu hezeagoak.

Ondorio itzelak izango ditu horrek jadanik gosez diren herrialdeetan, baina egoera larritu ahala, ur eskasiaren mugimendu migratzaileak gogor astinduko ditu herrialde aberatsenak; eta seguruenik, astintzen hasia da jada.

Munduko leku askotan lehorrearen ondorioak nabarmenak dira, esate baterako Bolivian, Cancuneko akordioa atzera bota duen herrialde bakarrean. Ondo kudeatuta ere ika-mika handien eragile da ura, txarto kudeatuta gatazken sortzaile. Uraren kudeaketaren pribatizazioa, barbarako, gatazka iturri

izan da munduan zehar. Horren adibide da, 2000. urtean Boliviako Cochabamban izan zen "uraren gerra". Mundu Bankuak Boliviako Gobernuua presionatu zuen Cochabambako uraren kudeaketa pribatizazian eta baita lortu ere. Bechtel multinazionalak hartu zuen bere kargu ura eta prezio igoerek laster piztu zuten matxinada. Ohi ez bezala, matxinoak garaile atera ziren eta uraren kudeaketa esku publikoetara itzuli zen Boliviako hirugarren hiri garrantzitsuenean. Nekazari *cocaleroen* partehartzea funtsezkoa izan zen erreboltan; Evo Morales izeneko nekazari bat zen hauen liderra.

IRUNERRIKO AUTOBUSEAN "ekologikoa" irakurtzen dut: nekazaritza-erregaietatik dator haien gurpilak mugitzen dituen mama goxoa. Gosea, labore produkzioa eta arazo etikoen gaia alboratuz, kontua da nekazaritza-erregaiak ez direla negutegi eraginaren kontrakoa, alderantziz baizik: nekazaritza-erregai litro bat lortzeko behar den zereal kopuruak 1.000 litro ur behar du. Eta ur xahuketak, gatazka eragiteaz gain, lurraren beroketa areagotzen du.

Cancunen ondoren, ohartzea bakarrik falta ei da. Gero helburuak jartzea. Eta, azkenik, betetzen hastea.

baga-biga

MUSIKA
BULEGO
INTEGRALA

MUSIKAN
BERRIENA

ESNE BELTZA
NOA
LP

UNE
AKUSTIKOAK
ETA BESTELAKO
UNEAK

TRASTORNA2
ESCAPANDO

GATIBU
ZUZENEAN
BIZITZEKO
GOGOIA
DVD+CD

SUTURA
SUEÑOS
PODRIDOS

ZAIN
XXI. MENDEKO
PIRATAK

ROCKAINA
EN EL AIRE

KORRONTZI & OINKARI
INFERNUKO
HAUSPOA
DVD

KHERAU
MUNDUAN
ORTOZIK

baga-biga musika ideiak
 telf. 618 072 076 /026
 www.baga-biga.com / info@baga-biga.com